

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

2020rako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga kobratzeko aldia irekitzea

Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa Urkabustaizko Udaleko alkateak jakinarazten dut:

2020ko irailaren 1etik urriaren 30era bitarteko egun baliodunetan, biak barne, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2020ko ordainagiriak borondatezko epean kobratuko dira.

Borondatezko aldia: irailaren 1etik urriaren 30era.

Premiamendu-aldia: borondatezko kobrantza-aldia amaitu eta hurrengo egunean hasten da, eta premiamendu administratiboko prozedura exekutiboa hasten da, dagokion errenergua aplikatuta (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikulua).

Ordaintzeko lekua eta modua:

Ordainketa helbideratuta duten zergadunek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko bankuko helbideratze-kontua mantentzen badute. Udalak 2020ko urriaren 30ean izapidetuko du ordainketa.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek Udalak Kutxabanken duen kontuan egin ahal izango dute ordainketa borondatezko epean.

Zergadunek beren zerga-zorrak banku eta kreditu-erakundeetan helbideratzea komeni dela gogorarazten da. Era berean, banku-helbideen altak edo aldaketak, eta jakinarazpenetarako helbide-aldaketak ere, Urkabustaizko udaletxean izapidetu beharko dira.

Horren berri ematen da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Izarra, 2020ko ekainaren 22a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA